

OSTEGUNEAN EGINDAKO IRAGARPENA. 2024ko OTSAILAREN 22a. 08:30.

## OSTEGUNA (2024/02/22)

Egunaren lehenengo partean zerua tarteka hodeitsu egongo da, erdi mailako hodeiekin eta goi-hodeiekin; arratsaldean zerua oso hodeitsu edo estalita egongo da eta azken orduetan hodeiak gutxituz joango dira. Egunaren bigarren partean prezipitazio txiki-ertaina egongo du; azken orduetan atertuz joango da. Egunaren bigarren partean elur-kota azkar jaitsiko da eta azken orduetan 1000 metro inguruan egongo da. Hego-mendebaldeko haizea ahul-bizia ibiliko da, bolada gogorrekin eta oso gogorrekin, bereziki haizeguneetan. Egunaren erdiko orduetan haizea mendebaldera edo ipar-mendebaldera aldatu eta kostaldean gogor ibiliko da, bolada oso gogorrekin; barnealdean ahul-bizi ibiliko da, bolada gogorrekin, eta gainerako lekutan ahul-bizi ibiliko da, bolada gogorrekin. Tenperatura maximoetan aldaketarik ez edo gutxi jaitsiko dira. Gauean mendi inguruetan izotz txikia egongo du.

Tenperaturak (°C)	
	<i>Maximoa</i>
Donostia	19
Bilbao	19
Gasteiz	15
Arrasate	18

## OSTIRALA (2024/02/23)

Zerua hodeitsu edo oso hodeitsu egongo da. Goizaldean eta goizean Kantauri isurialdean noizean behin zaparrada txikiak botako ditu, bereziki kostaldean. Eguerditik aurrera zaparrada txikiak botako ditu, zenbait lekutan ertainak, sarriagoak eta ugariagoak Kantauri isurialdean eta azken orduetan. Trumoi-ekaitzak izan daitezke eta txingorra bota dezake. Elur-kota 800 metro inguruan egongo da. Mendebal-osagaiko haize ahul-bizia ibiliko da, bolada gogorrekin haizeguneetan; kostaldean bizi-gogor ibiliko da, bolada oso gogorrekin. Tenperatura minimoetan aldaketarik ez edo gutxi jaitsiko dira, maximoak asko jaitsiko dira. Barnealdeko zenbait tokitan izotz txikia egongo du; mendi inguruetan izotz ertaina egin dezake.

Tenperaturak (°C)		
	<i>Minimoa</i>	<i>Maximoa</i>
Donostia	5	12
Bilbao	6	13
Gasteiz	1	9
Arrasate	2	10

## LARUNBATA (2024/02/24)

Zerua hodeitsu edo oso hodeitsu egongo da. Kantauri isurialdean zaparrada txiki-ertainak botako ditu, bereziki kostaldean. Gainerako lekuetan han-hemenka zaparrada txikiak botako ditu, noizbehinka ertainak. Egunaren lehengo partean trumoi-ekaitzak izan daitezke eta txingorra bota dezake. Elur-kota 700 m inguruan egongo da; arratsalde-gau partean igoz joango da eta 1000 m inguruan egongo da. Mendebal-osagaiko haize ahul-bizia ibiliko da, bolada gogorrekin eta oso gogorrekin, batez ere kostaldean eta Araba hegoaldean. Tenperaturan aldaketarik ez edo gutxi jaitsiko da. Barnealdean izotz txikia egongo du, mendi inguruetan ertaina.

## IGANDEA (2024/02/25)

Zerua oso hodeitsu egongo da. Prezipitazio txiki-ertainak botako ditu, sarriago barnealdean. Elur-kota 1000-1500 m artean koka daiteke. Mendebal/hego-mendebaldeko haize bizia ibiliko da, bolada gogorrekin eta oso gogorrekin, bereziki haizeguneetan. Tenperatura minimoak gutxi edo nahikoa igo eta maximoak nabarmen igoko dira, Kantauri isurialdean bereziki.

**EUSKO JAURLARITZA**

**SEGURTASUN SAILA**  
*Lanbidei Aurre Egiteko*  
*eta Meteorologiako Zuzendaritza*



**GOBIERNO VASCO**

**DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD**  
*Dirección de Atención de Emergencias*  
*y Meteorología*



**Euskalmet**

**EUSKAL METEOROLOGIA AGENTZIA**  
**AGENCIA VASCA DE METEOROLOGIA**